



auditoria soziala
REAS EUSKADI

ZINE-EMANALDIA HASI DADILA!
¡QUE COMIENZE LA FUNCIÓN!



auditoria soziala
REAS EUSKADI

AUDITORIA SOZIALA
kanpaina

2026



auditoria soziala
REAS EUSKADI

AUDITORIA SOZIALA EGITEKO TUTORIALA

2026ko kanpaina

Auditoria Soziala egiteko pausoak:

1. Tresna informatikora sartu
2. Erregistratu (oraindik erabiltzailerik ez baduzue)
3. Auditoria Sozialeko datuak betetzen hasi
4. Itxi eta galdetegia amaitu
5. Baliozkotzeak egin eta emaitzean, dokumentuak, infografiak eta zigilua eskuratu



1. Tresna informatikora sartu

Lurralde guztietarako, hauek dira sartzeko URLak:

- <https://ensnyaelcor.org>
- <https://ensenaelcorazon.org/>
- <https://bihotzaerakutsi.org/>
- <https://ensinaocorazon.org/>

Harrotasunez bihotza erakusteko inpaktu-neurketa

Inpaktua neurtzeak zure inpaktua kudeatzen lagundu diezazuke

Bihotza erakustearen onura nagusiak

- Bihotza erakustearen onura nagusiak.
- Zure interesdunen datuak biltzeko aukera ematen duzu (adib. langileak, hornitzaileak, boluntarioak).
- Ziurtapen-prozesuak errazten ditu zure gizarte-enpresen sarearekin.
- Zure inpaktuaren berri emateko dokumentuak sortzen ditu (infografiak, kalkulu-orriak, etiketak).

Saioa hasi

Posta elektronikoa

Pasahitza

Gogoratu nazazu

Zure pasa hitza ahaztu duzu?

Hasi

Oraindik ez al duzu konturik?
[Kontua sortu](#)

Sartzeko, plataforman erregistratutako helbide elektronikoa sartu eta "pasahitza berreskuratu" botoia sakatu behar da. Aurreko urteetako pasahitzek EZ DUTE BALIO. Hori eginda, behean agertzen den moduko elkarrizketa-koadro bat irekiko zaizue. Bertan, helbide elektronikoa bete behar duzue; okerreko helbide bat sartuz gero, aplikazioak berak jakinaraziko dizue. Ez baduzue gogoratzen zein helbide dagoen erregistratuta, auditoriasoziala@reaseuskadi.eus helbidera idatzi diezagukezue eta jakinaraziko dizuegu.

Pasahitza berreskuratzea eskatzen duzuenean, kanpoko esteka bat duen mezu elektronikoa bat jasoko duzue pasahitza berriz ezartzeko.



☰ Show your heart EU ▾

Pasahitza berreskuratzeko

Sar ezazu zure posta elektronikoa. Zure pasahitza berrezarri ahal izateko esteka bat bidaliko zaio helbide honetara.

Posta elektronikoa

Bidali

2. Erregistratu (oraindik erabiltzailerik ez baduzue)

Lehen aldiz erregistratzeko, «Kontua sortu» botoia sakatu behar da. Pantailaren tamaina oso txikia bada, baliteke bistaratze-arazoak izatea; gomendatzen dizuegu pantaila txikitzea «Control -» sakatuz.

Ondoren, hurrengo pantaila irekiko zaizue, eta bertan izartxoarekin (*) markatutako datuak bete beharko dituzue. Gogoratu kalitate oneko logo bat igotzea garrantzitsua dela, webguneak sortuko dituen dokumentuetan erabiliko baita.

Show your heart EU ▾

Hasiera Zer da Auditoretza Soziala? Praktika onak Dokumentuak Baliabideak Kontaktua

Erregistratzeko eskaera

Gardentasuna, Ekonomia soziala eta solidarioa

Antolakundearen izena*

Antolakundearen deskribapena*

Logo

Seleccionar archivo Ningún archivo seleccionado



Erregistro-formularioak, behean ikus dezakezuen bezala, erakundearen oinarrizko datu batzuk eskatzen ditu. Bereziki garrantzitsuak dira bi alderdi hauek:

- Inpaktuaren neurketa-metodoa: erakundeak aukeratu ditzakeen moduluak agertzen dira, dagokion autonomia-erkidegoaren eta, kasu batzuetan, forma juridikoaren arabera. Metodo bat hautatzean, sarbide-eskaera automatikoki bidaltzen zaio hura kudeatzen duen sareari. Gure kasuan, "Auditoria Soziala Euskadi" aukeratu behar da.

Inpaktua neurtzeko metodoa

Auditoria Soziala Euskadi |

- Infografiak publiko egitea baimentzea: baldintza hau onartzeak esan nahi du REAS Euskadiri eta REAS Red de Redes-i baimena ematen diezuela zuen Auditoria Sozialeko infografia indibiduala publikoki zabaltzeko, zehazki www.reaseuskadi.eus eta www.mercadosocial.net webguneetan.

Infografiak argitaratzea onartu

Eskaera bidali ondoren, sareak zuen erregistroa onartuko du, eta pasahitza sortzeko esteka duen mezu elektronikoko bat jasoko duzue. Dena prest duzue zuen kudeaketa-eremuan sartzeko.



3. Auditoria Sozialeko datuak betetzen hasi

Hasierako orrian, zuen harremanetarako datuak kontsultatu eta aldatzeko atal bat ikusiko duzue. Horrez gain, zuen sareari dagokion Auditoria Soziala ere aurkituko duzue.

The screenshot shows the REAS Euskadi website interface. At the top, there is a navigation bar with the text "Show your heart" and a user profile icon. Below the navigation bar, there are several menu items: "Hasiera", "Zer da Auditoretza Soziala?", "Praktika onak", "Dokumentuak", "Baliabideak", and "Kontaktua". The main content area is titled "Kaixo REAS Euskadi". Below this, there is a profile card for "REAS Euskadi" with the following information: "Antolakundearen logoa", "NIF G48953210", and "Posta elektronikoa auditoriasoziala@reaseuskadi.eus". There is also a button labeled "Entitateko datuak aldatzea". Below the profile card, there is a section titled "Egiteke dauden balantzeak" (Balances to be completed). This section contains a card for "Auditoria Soziala Euskadi - 2026" showing a progress bar at 0%. Below the progress bar, there is text: "Auditoritza Sozialaren 0% bete duzue. Emandako datuekin denok hobetzen dugula gogoratu." Underneath, there is a section titled "Atalaren laburpena" (Summary of the section) with three colored boxes: a green box with "0" and "Osatuak" (Completed), a blue box with "0" and "Aurrera doa" (Moving forward), and an orange box with "7" and "Egiteke" (To be completed).


Garrantzitsua da atal honetako informazioari arreta jartzea, estatutko Merkatu Sozialaren katalogoan agertuko dena izango baita; bereziki:

- Logoa.
- Deskribapena.
- Probintzia/Eskualdea/Herria.
- Sektorea/azpisektorea.

Goiko eskuineko aldean klik egin dezakezue, profila aldatzeko eta pasahitza berritzeko pantailara sartzeko.



Auditoria Soziala betetzen hasteko, “balantzera joan” botoian klik egin behar duzue.



Auditoria Soziala informaziozko 6 bloke nagusik osatzen dute:

- Datu orokorrak
- Ekonomia eta aberastasunaren bidezko banaketa
- Berdintasuna eta demokrazia
- Jasangarritasun ekologikoa
- Lankidetzeta eta ingurunearekiko konpromisoa
- Lan duina



Ezkerreko aldean blokeak ikusiko dituzue, eta kutxetan klik eginez haietan nabigatu ahal izango duzue. Garrantzitsua da galderak blokeek duten ordenan erantzutea; izan ere, hurrengo blokeetako galdera batzuk datu orokorren fitxan emandako informazioaren arabera aktibatzen dira.


Galdera guztien ondoan, datuen bilketa errazteko, informazio-botoi bat aurkituko duzue. Sakatzen baduzue, laguntza-leiho bat irekiko da, eskatzen diren datuak zein diren eta non aurki daitezkeen azaltzen duena (informazio hori Galderen Gidan ere eskuragarri duzue). Aurreko ekitaldietan Auditoria Soziala egin baduzue, adierazle bakoitzean, datuak sartzeko eremuan, aurreko urtean jarritako datua gris kolorean agertuko zaizue. Horrela, erreferentzia bat izango duzue eta bilakaeraren lehen balorazio bat egin ahal izango duzue.

Bloke bakoitzaren amaieran, emandako informazioa «Gorde» botoiaren bidez gordetzeko aukera izango duzue. Ez da beharrezkoa bloke osoa amaitzea gordetzeko; beraz, nahi duzuenean irten eta berriro sartu ahal izango zarete, eta sartutako informazioa gordeta geratuko da.



4. Galdetegia itxi eta amaitu

Hasierako orrian Auditoria Sozialaren aurrerapena ikus dezakezue. Atalen laburpena agertzen da, zenbat dauden osatuta, zenbat prozesuan eta zenbat egiteko. Gainera, aurrerapen-barra baten bidez, osatutako galderen ehunekoa ikus dezakezue.



Galdera guztiak erantzunda daudenean eta baliozkotzea zuzena denean, zuen datuak sareari bidali ahal izango dizkiozue beheko ezkerreko aldean dagoen bidaltzeko botoia sakatuz.

Gorde

Bidali



Ekintza hau egin ondoren, ezingo dituzue datuak gehiago editatu, eta zuen sareak sartutako datuak baliozkotzeari ekingo dio. Sartutako datuen inguruan zalantzaren bat egongo balitz, sarea zuekin harremanetan jarriko litzateke.

5. Baliozkotzeak eta emaitzen dokumentuak zein infografiak eskuratzea

Auditoria bat itxita dagoenean, emaitzen dokumentuak eta infografia ez dira automatikoki sortzen; izan ere, lehenik eta behin datuen baliozkotzeak egiten ditugu. Baliozkotzeak amaitzean, posta elektronikoz jakinaraziko dizuegu, eta ondoren, erantzunak eta emaitzak dituzten dokumentuak eskuragarri izango dituzue orriaren goiko aldeko DOKUMENTUAK atalean.

Dokumentuak				
Kanpainak	Auditoria Soziala Euskadi	Auditoria Soziala Euskadi	Infografiak	Sigiluak
2025 ekitaldia	-	-	-	-
2024 ekitaldia	-	-	-	-

Informazio gehiagorako:
Amaia Naveda Sáenz de Ugarte
auditoriasoziala@reaseuskadi.eus
944 160 566 / 652 740 146

Eskerrik asko zure
konpromisoagatik
eta
gardentasunagatik.
Horrela, ekonomia
sozialago,
jasangarriago eta
solidarioago hau
ikusgarri egiten dugu.



REAS
EUSKADI